

JON MIRANDA



BEDAIO IA ISOLATUTA

Auzotar asko telefonorik eta internetarako konexiorik gabe daude; komunikazio faltarena ez da berria bedaiotarrentzat, baina, egungo egoera are eta gehiago ari da zailtzen euren egunerokotasuna //

3

«Errutina behar du garunak ondo funtzionatu ahalizateko»

IDOIA APAOLAZA
PSIKOPEDAGOGOA

Egoerari aurre egiteko gakoetako bat pentsamendu ezkorrak albo batera utzi eta baikorrei begira jartzea dela dio //

4

Auzipetuen gastuak bere gain hartuko ditu Enirio Aralar Mankomunitateak

Auzipetutako zazpi hautetsien defentsa kostuak hartuko ditu bere gain, «ordezkaritza eta defentsa egoera egokia» izan dezaten //

5



ataria
argazki lehiaketa

Mozorro hoberenaren bila




ALDEKOA



Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

Bozkatu hemen



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria



LURLAN
BASERRITIK
ZURE ETXERA
DOL. KATERINA TIGELA

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria



TAO bertan behera geratu da

Tolosa & Co-k, Ibarako Merkatarri Elkarteak eta Oria Merkatarrien Elkarteak egun hauetan zabalik dauden saltokien zerrenda zabaldu dute, beti ere, elkartearen barruan dauden saltokiak

Erredakzioa

Tolosako Udalak hiribus zerbitzua murriztea eta TAO bertan behera uztea erabaki du. Autobus zerbitzua 07:30etik 09:00etara ordu erdiro izango da. 09:00etatik 21:00etara, berriz, orduro. Horrez gain, garraio ibilgailuen garbiketa areagotu egingo dute. Erabiltzaileei, berriz, elkarren artean distantzia mantentzea eskatu die.

Lurraldebusek gutxieneko zerbitzuak iragarri ditu, eta ordutegi aldaketak egongo direla iragarri. Informazio guztia www.tsst.info webgunean zintzilikatu dute.

TAO zerbitzuari dagokionean, udalak alarma egoerak iraun bitartean bertan behera utziko du zerbitzua, «ez daitezten TAO makinak erabili eta herritarrek kotxea soilik beharrezkoa den kasuetan har dezaten».

Azkenik, udalak bertan behera utzi ditu bilera eta batzorde guztiak, eta ebatsi beharreko gaiekin bakarrik egingo dira hil honetako Batzorde Informatiboak, an-



Mendi federaziotik mendira ez joateko deialdia zabaldu dute. A. IMAZ

tolakuntzakoak soilik, eta Osoko Bilkura. Bestelako gairik ez dela jorratuko azaldu dute.

Batzordeen bileretara talde bakoitzeko zinegotzi bakarra joango dela iragarri dute, eta talde osoaren izenean emango du botoa. Osoko Bilkura gutxieneko zinegotzien kopuruarekin egingo da, ateak itxita eta prebentzio neurri guztiak hartuta.

MENDIZALEEI DEIALDIA

Euskal Mendi Federazioak oharra zabaldu die herritarrei eta mendizaleei: «Saia gaitzen gure ingurune naturalean jarduerarik ez egiten, gure buruak arriskuan jar ez ditzagun; izan ere, osasun-baliabideak erabiltzea ekarriko luke horrek, eta, une honetan, baliabide horiek behar-beharrezkoak dira herritarrek krisigarai honetan dituzten premia larriei erantzuteko. Gure ekin-tzek besteei lagundu edo kalte egin diezaieketela pentsatzeko garaia da. Jar dezagun guztion onura norberarenaren aurretik. Mendiak hortxe jarraituko du, gure zain».

IREKITA DAUDEN SALTOKIAK, TOLOSAN, AMASA-VILLABONAN ETA IBARRAN

Tolosa ELIKAGAIK Super Eko. 08:00–13:30 eta 16:30–20:30. Cocinas Mujika. 08:30–14:00 eta 17:00–20:00. Asteburu eta jai egu-netan, 09:00–15:00. Maria Janaridenda. 09:00–13:00. Mariaje Alimentacion. 09:00–13:00. Soronea. 09:00–13:30 eta 16:30–20:00. Itsaslur. 09:30–13:30. Bizziz. 09:30–13:00 eta 16:45–20:00. Dietetica Gorrotxategi. 09:30–13:30. Dietetica Sendabide. 09:30–13:30. Guki. 09:30–13:00 eta 17:00–19:00. OKINDEGIAK Larramendi Okindegia. 07:00–14:00 eta 19:00–20:00. Ogia eta oi-narrizko elikagaiak bakarrik. Gozona. 07:00–14:00. P. Eceiza (Rondilla). 07:30–14:00. Pasteleria Eceiza (San Frantzisko). 07:30–14:00.	GARBIKETA Saberri. 10:00–13:00. HARATEGIAK Imanol Barriola. 08:30–13:30. Altuna. 08:30–13:30. Arozena. 08:30–13:30 eta 16:30–19:30. Carnicas Alejandro Goya. 08:30–13:30. Iturralde. 08:30–13:30 eta 17:00–20:00. Miren. 09:00–13:30 eta 17:00–20:00. Muñagorri. 08:30–13:30. Otzarreta. 08:30–13:30 eta 17:00–20:00. ARRANDEGIAK Kaia. 09:00–13:00. Larunbatean, 08:30–13:00. Bacalao Txiki Jai. 08:30–13:00 eta 16:30–20:00. Itsasargi. 09:00–13:00. FRUTA DENDAK La Huerta. 09:00–13:00 eta 17:00–20:00. Eskariak: 943 67 54 66.	San Francisco. 09:30–13:30 eta 17:00–20:30. PRENTSA ETA PAPER DENDA Babel. 08:00–13:00. Copytec. Eskeraek eta urgentziak: 631 32 22 63. Mail Boxes. Enpresa bezeroentzat bakarrik. FARMAZIAK Edurne Bengoetxea. 09:00–13:30 eta 16:30–19:30. Guardia larunbate-an, 09:00–22:00. Cecilia Bronte. 09:00–13:30 eta 16:30–19:30. Iñaki Olarreaga. 09:00–13:30 eta 16:30–19:30. Marta Olarreaga. 09:00–13:15 eta 16:30–19:30. Benefit Parafarmazia. 10:00–13:00. OPTIKA eta PRODUKTU ORTOPEDIKOAK Argizti (Trianguloa). 09:30–13:00. Opticalia Bronte. 09:30–13:00. ESTANKOAK	Agirre. 10:00–13:00. Zabala. 10:00–13:00. TEKNOLOGIA eta TELEKOMUNIKAZIOAK Goena. Larrialdiak: 616 99 23 44. Beotibar. Larrialdiak: 688 62 75 68. Zumeta. Larrialdiak: 609 58 48 14. CDI. Larrialdiak: 688 75 83 16. Euskaltel. 09:30–13:30 eta 16:30–20:00. Lumen. Larrialdiak: 607 77 38 08. ANIMALIENTZAKO ELIKAGAIK Shun-ka. 09:30–13:30. Amasa-Villabona Musturienea harategia. 08:30–13:30. Labezain okindegia. 07:00–14:00. Lider gozotegia. 09:00–13:30. Basajaun liburudenda. 10:30–13:30. Tinta inprimategia. 10:00–13:00. Villabona optica audiologia. Larrialdiak: 943 111 840. Farmazia Berria. 09:00–22:00. Sahatsa belar denda. 09:00–19:00.	Pepi janaridenda. 08:00–13:30 eta 17:00–20:30. Amasa okindegia. 07:00–14:00. Aranburu ardoak. 08:30–13:30. Kazetaria. 05:30–13:00. Zizurkil elektrizitatea. Larrialdiak: 607 94 07 08 / 607 94 07 06 / 652 77 36 16 Ibarra Optika Ibarra. Larrialdiak: 638 78 90 47. Oramahai Makiu. 07:00–13:00. Bikoitz arrandegia. 09:30–13:00. Joakin Tolosa harategia. 09:30–13:00. Bitxori. 09:30–13:00. JM Barriola harategia. 09:30–13:00. Oreka belar denda. 09:30–13:00. Errotatxo okindegia. 09:30–13:00. JB Barriola harategia. 08:00–13:30. Uranga harategia. 08:00–13:30. Ibarburu janaridenda. 09:00–13:30 eta 16:45–20:00. Xabi Errazkin Artola. 09:00–13:00 eta 16:30–20:00. Lurdez liburudenda. 09:30–13:00. Goxobi. 16:00–18:00.
---	---	---	--	--

Bedaiotar asko ostegunetik inkomunikatuta daude

Auzotar asko telefonorik eta interneterako konexiorik gabe daude; egoera ez da berria, baina «oso haserre» daude eta irtenbiderik gabe

Eneritz Maiz Etxarri Bedaio


Tolosako Bedaio auzoan kexu dira. Ostegunetik, hau da, martxoaren 12tik, interneterako konexiorik eta telefonorik gabe daude auzoaren zati handi batean.

Ugartera jaitsi behar izaten dute kobertura bila, deiak egin edota whatsapp mezuak erantzutera. «Oso haserre» agertu dira bizilagunak. Orain, «koronabirusa dela eta, etxean egon behar dugun garaian, ez daukagu ezer», diote. Seme-alabek ezin dituztela etxetik ikasketak jarraitu ere salatu dute.

Telelana ahoz aho dabilen honetan, ezin dute etxetik lanik egin: «Euskal Herri osoan ez daude azpiegiturak prestatuta. Ezinezkoa zaigu etxetik lana egitea, beraz, ez daitezela etxetik lan egitea bultzatzen saiatu. Jarri ditzatela baldintzak behar bezala herritar guztiontzat».

Ez zaie berria egoera. Urteak daramatzate zuntz optikoa sartzeko eskatzen. Tolosako auzo bakarra da egoera horretan, «negarra egiteko gogo» sartzen zaiela diote.

Era berean, adinekoak bizi diren etxeak badira, eta edozein larrialdiren aurrean, telefonorik ere ez dute. Edo ezin dira beraie-



Urteak daramatzate borroka honekin bedaiotarrek; orain, deiak egiteko telefonorik ere ez dute. J. MIRANDA

kin harremanetan jarri. «Teleasistentziako aparatua dute batzuek, eta haiekin ere ezin dira harremanetan jarri».

«Kobrezko kablea izorratuta omen dago, eta zati batzuk baino ez dituzte konpontzen. Eta langileek beraiek esaten dizute, 'zuri konpondu dizut, baina auzokoa gabe utzi dut', kontatzen dute Bedaioko auzotarrek. Antza, ez dute osotasunean konpontzeko intentziorik.

Tolosako zentralitatik ADSL bidez iristen zaie internet zerbitzua, eta Bedaiora 0,8 edo 0,5 megabite iristen dira. «Ez da ezer. Tarteka lortzen duzu zer-

bait jaso edo bidaltzea, baina orain hori izateagatik bakarrik ez dakit zer egingo genukeen».

«ETSIGARRIA»

Kexu dira Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Tolosako Udaletik ez dutela inolako babesik jasotzen. «Bi urte itxaron behar ditugu zuntz optikoa iristeko, baina ez dakigu ziurtasunez iritsiko den ere. Etsigarria da». Atzo bertan, Tolosako Udalarekin harremanetan jarri dira. «Udalari mesede eskatu diogu Movistarrera deitu dezan presio modura eta Tolosako auzo bateko biztanleek duten egoeraz kexatzeko; euren

erantzuna izan da enpresa pribatua dela eta norberak duen kontratuan udalak ez duela ezer egiteko. Ez dugu ulertzen gure ordezkari politiko batek erantzun hori ematea. Arazoa ez da bizilagun batena, baizik eta bere herritarrak diren auzo batena. Arazo honen jatorria utzikeria da, eta kasu honetan, enpresa handi batek duen boterearen aurrean administrazioaren utzikeria», adierazi dute bizilagunak.

Movistarrera deika eta deika ari dira Bedaioko bizilagunak, «gaur-atzo-gutxienez, barkamena eskatu digute, baina ez digute irtenbiderik ematen».

eLiburutegian mailegatzeko plataformarako sarbidea erraztu dute

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eLiburutegia herritarren eskura jarri du liburuak eta filmak mailegatzeko

Erredakzioa

Koronabirusa dela eta, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, herritar guztiak eLiburutegira hurbil daitezten eta era berean erraztasunak izan ditzaten, *liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus* helbide elektronikoa prestatu du aldi baterako.

Euskadiko Irakurketa Publiko-ko Sareko pasahitzik ez duten bazkideek helbide horren bidez eskatu ahal izango dute eLiburutegian sartzeko pasahitza; edo kasuren batean udal liburutegira idatzita. Era berean, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko edozein liburutegitako bazkide ez diren pertsonak aukera izango dute helbide horren bidez bazkide egiteko eta, ondorioz, eLiburutegian sartzeko.

Eliburutegia.euskadi.eus helbidean sartuta, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako bazkideek 20.000 liburu digital eta 15.000 film baino gehiagoko katalogo bat eskuratu ahal izango dute.

Ordenagailu, tablet edo eBook bidez irakur daitezke jaitzitalako liburuak.

LIBURUAK ETA FILMAK

Aldiko hiru liburu batera jaisteko aukera ematen du, eta mailegua 21 egunerako da. 21. egunean automatikoki kentzen da. Hala ere, bost egun falta direla gogoratzeko mezu bat bidaltzen hasiko litzateke.

Modu berean, filmak ere jaitsi daitezke, hauen kasuan, bi egunetarako dira.

ZUZENKETA

Pasa den martxoaren 11n, asteazkena, TOLOSALDEKO ATARIA egunkariko 2. orrian 'Fiskaltza-ren zain geratuko dela dio Udal Gobernuak' albistean Ander Figuerido EH Bilduko zinegotziaren esan batzuk argitaratu ziren, paperean dauden esanak ez dira zehatzak, webguneko albistean daude bere osotasunean.



AUTO BERRIA

Tolosako Herri Babesak ibilgailu berria du. Ez behar naturalan, erreskatetan, hainbat kirol probatan eta udalak eta herriko elkarteek antolatutako ekintza ezberdinetan parte hartzen duten boluntarioez osatutako taldea da. Orain arteko autoak 20 urtetik gora zitu. Elurra kentzeko pala zein gatza botatzeko tobera erantsi ahal izateko euskarriak ditu, eta mendian zein gune malkartsuetan ibiltzeko prestatuta dago. ATARIA

«Etxean gaudenean errutina bat mantendu behar dugu»

IDOIA APAOLAZA
PSIKOPEDAGOGOA

Pentsamendu negatiboak albo batera utzi eta positiboak begira jartzea da egoerari aurre egiteko beste gakoetako bat, Apaolazaren ustez. Ezohiko egoeraren aurrean naturaltasunez jokatzeko gomendatu du.



INIGO TERRADILLOS

Irati Saizar Artola Ikaztegieta

Errutina hankaz gora jartzeak bolada txarra pasazteak ekar diezake bati baino gehiagori. Koronabirusa dela eta sortutako egoerak, beldur eta kezka sortu dituela dio Idonia Apaolaza psikopedagogoak (Ikaztegieta, 1980). Egun hauetan kontuan hartzeko gomendioak eman ditu.

Nola eragin dio jendeari honek guztiak?

Arazo nagusia izan da ustekabea harrapatu gaituela. Italian zer gertatzen ari zitzaizen bagenekien, baina bat-batean etorri zaiugu guri, eta prestatzeko denbora askorik ez dugu izan.

Beldurra eta kezka sortu dagoizartean?

Egoera normaletik atera gaitu, eta garunak ongi funtzionatzeko bere errutina behar du. Horrek

segurtasuna ematen digu. Ezustean horrelako zerbait gertatzen denean, ordea, goitik behera aldatzen du guztia, eta bizitzeko modua aldatu egin behar da. Horrek, hainbat ezinegon eta kezka sortzen ditu, baina hori normala da.

Zein gomendio emango zenizkioke etxean dagoenari?

Etxean gaudenean antolamendu bat izaten saiatu behar dugu, ordutegi bat finkatzen. Haurren kasuan, ere berdin.

Burua zenbat eta entretenituago eduki, askoz ere errazagoa izango da aurre egitea. Baina kezka sortzen zaizkigu, lan egoeratik, soldatagatik, hilabete amaierara nola iritsi ez dakigulako. Ikusten dugu, ordea, denok gaudela antzeko. Erreferenteak direnak ere nola jokatu ez dakitela ikusten ditugunean segurtasuna

sun falta hori gizartera transmititzen dute. Hala ere, ahalik eta normaltasun handienarekin eraman behar dugu egoera aurrrera.

Etxean egonda, zein egun den ere ez da argi izaten askotan.

Betiko errutina, normalean, haurrak eskolara doazenean edota lanera goazenean egiten dugu. Jubilatuek askotan ez dakite zein egunetan bizi diren ere. Uste dut, guztiak antzeko egongo garela, baina, momentu hauetan garrantzitsua da egutegia hartu eta zein egunetan gauden behintzat jakitea.

Informazio zaparradari jaramon egin behar zaio?

Irakurtzea beti da ona, baina zaparrada handiegia ito egiten du bat. Uneoro zenbat pertsona dauden kutsatuta eta zenbat hil diren jakiteak antsietate egoera

handitu egiten du. Neurria hartu behar zaio.

Supermerkatuetako egoera ikusteak, esaterako, estres puntu bat sortu dezake?

Bai, horrek sortzen du antsietatea, eta gainera, portaera berdina errepikatzea eramaten gaitu. Hau da, pentsatzen badugu gauzak amaitzen ari direla, iruditzen zaigu gu ere gabe geratuko garela, eta berdina egiten dugu. Horrek ez du laguntzen.

Lasaiago hartu behar da?

Ez da erraza lasai hartzea, gehienbat, ezustean harrapatu gaituelako. Krisi bat etorriko denaren mezuak entzuten ari gara, eta mundu amaiera datorrela dirudi. Baina ez da horrela.

Pentsamendu negatiboak baztertu behar dira?

Normalena da pentsamendu txarrak etortzea burura, ez baita egoera eroso. Baina ariketa bat izan daiteke pentsamendu negatibo horiek identifikatu eta buelta ematen jakitearena, eta alde onak ikustearena. Egoera gehienek daukate alde ona, eta honekin ere deskantsatzeko edo familian gehiago egoteko aukera daukagu. Gehiago landu beharko genuke ikuspegi positibo hori. Aterako gara hemendik ere. Historiari begiratuko bagenio, gizarteak betidanik bizi izan ditu horrelako egoerak, beste gaixotasun bat dela edo gerra bat dela.

Denbora pasatzeko bideo-deiak egiten dituzte askok.

Betiere kontuan izan behar dugu deitzen digunak zein mezu eman nahi digun. Gehiago asaldatu baneu edo badu, hobe beste batean deitzea.

Askok, haurrak dituzte etxean. Zer egin daiteke?

Lehenik eta behin argi utzi behar zaie ez direla oporrak. Batzuk, eskolako lanak izango dituzte eta horiek bete egin behar dituzte. Txikiagoekin entretenimendura jo beharko dugu, mahai jokoei, telebistarekin edota bideo jokoei arituta. Horiek ere neurri bat izan behar dute, ordea. Lo orduak edota otorduak ere errespetatu egin behar dira.

Haurrei kontatu behar zaie zer ari den gertatzen?

Bai, baina lasaitasunez. Esaten duguna zaintzen saiatuko gara. Esprikatu egin behar zaie zein den egoera, baina ez gara sartuko zenbat hildako izan diren eta esaten. Ez gaituzte ikusi behar kezkatuta gaudenik, gu baikara haien erreferenteak.

Eta ez dakigu noiz arte iraungo duen honek.

Sinetsarazi digute mundu seguru batean bizi garela, eta hori ez da egia. Ikusi dugu birus baten gaitik nola gauden. Heriotzari aurre egiteak beldurtu egiten gaitu, eta badakigu gu ere zaurgarriak garela. Gure bizitza programatuta dago, eta egoera berri baten aurrean gaudenez ez dakigu seguru nola egingo diogun aurre. Baina egingo diogu.

GOIKOETXEA
sagardotegia

Sagardo Naturala

Erreserbak:
609 714 203 • 943 68 21 75

Elbarrena Kalea, 9 | 20490 - Lizartza
Aroztegi baserria, 9 | Tel.: 609 71 42 03

Asteartetik larunbatera afariak
Larunbat eta igandetan bazkariak

Erredakzioa

Aurreko legealdian Enirio-Aralar Mankomunitateko udal ordezkari izan ziren zazpi pertsona, tartean Abaltzisketako Jon Zubizarreta eta Amezketako Ainhoa Zuriarrain, Tolosako Hirugarren Instrukzio Epaitegian auzipetuta daude. Mankomunitateko ordezkari zirela Enirio-Igaratza arteko bidea egokitze lanak egiteko aldeko bozka eman zuten, eta ondorioz, Natur Baliabide eta Ingurugiroaren eta Lurraldearen Antolaketaren us-tezko delitua egin izana egotzi diete. Auzipetutako zazpi hautesien defentsa kostuak bere gain hartuko ditu mankomunitateak, «ordezkaritza eta defentsa egoera egokia» izan dezaten.

Aurreko osteguneko presazko eta ezohiko zuzendaritza batzarra deitzeko eskaera Abaltzisketako, Altzaga, Arama, Beasain eta Lazkaoko ordezkariak proposatu zuten, Enirio-Igaratza mendi pistari baieztatu bozka emategatik auzipetuta dauden ordezkariak eragiten dien puntua tratatzeko. Koronabirusagatik bilkura ahalik eta motzen egiten saiatu ziren eta aurreikusita zeuden zazpi puntuetatik bakarra landu zuten, hain zuzen, auzipetuen defentsa kostuak mankomunitateak ordaintzeari zegokiona. Ordainketak «berekala» egiteko proposamena luzatu zen gai zerrand.

Auzipetuek egindako eskaerari dagokionez, mankomunitateko idazkariak egindako bi txosten daude, ordezkariak eta defentsa gastu horiek mankomunitateak bere gain hartu ahal izateko baldintzak zehazten dituztenak. Gastuen ordainketa, ikertuak delituaren erantzulez jotzen ez direla egiaztatu ondoren egitea esaten du lehen txostenak. Bigarrenak, gastuak ordaintzeko kide guztiek egindako ordainketak justifikatu behar dituztela esaten du.



Iazko azaroaren 12an, mankomunitateak egindako ezohiko batzarren artxiboko irudia. GOIERRIKO HITZA

Bere gain hartuko ditu mankomunitateak auzipetuen gastuak

Enirio Aralar Mankomunitateak ezohiko bilkura egin zuen aurreko ostegunean, martxoak 12; Aralarko pisten auzian auzipetutakoen defentsa kostuak ordainduko dituzte

Adur Ezenarro mankomunitate lehendakariak bilkuran adierazi zuen eskaera egitea «zilegi» dela, baina bigarren txostenak ezarri bezala, gastu horiek indemnizagarriak izateko eta ordaindu ahal izateko, dagokion prozedura jarraitu behar dutela, «auzipetuen defentsa gastuen fakturak aurkeztuz adibidez».

Aurreko osteguneko bilkuran 14 ordezkari hartu zuten parte

eta ordainketa berehala egitearen aldeko 13 bozka izan ziren. Kontrako boto bakarra Ezenarro lehendakariak eman zuen eta bozka arrazoitzaerako orduan argudiatu zuen, mankomunitateko lehendakari ohiak Ordiziako udalbatzak adostutakoaren kontra egin zuela eta «interesa pertsonalak medio» eman ziola babesak Enirio-Igaratzako pistari.

Aitor Aldasoro Beasaingo al-

kateak hartu zuen hitza bilkuran eta EH Bilduko ordezkariak aurpegiatu ziren, ordainketak lehenbailehen egitea edo ez borondate politikoaren baitan zegoela. Batzarrean Aldasorok azaldu zuen defentsaren orain arteko fakturak ordaindu behar izan dituztela dagoeneko auzipetuek, «3.000 euroko faktura bana». Beasaingo alkatearen hitzetan «indefentsio» egoera honi

eusteak aurrekari «oso larria» ezarriko luke. «Gure eskualdeko herrietan organo kolegiatutako parte hartzen duten ordezkariak, udalbatzetako zinegotziak edota mankomunitate eta abarretako ordezkariak, kanpo presioen baldintzapean arituko lirarteke, behin behinean euren patrikatik aurre egin behar badiete bertan hartutako erabakien ondorioei».

14 ordezkari hartu zuten parte eta ordainketa berehala egitearen aldeko 13 bozka izan ziren

Honenbestez, mankomunitateak auzipetuen gastuak bere gain hartzea eta ordainketa berehala egitea adostu zuen 13 baiezko botorekin eta lehendakariaren ezezko boto bakarrarekin. Auzipetuek orain arteko ordainketen fakturak aurkeztu beharko dituzte, eta horretaz gain, herri bakoitzak egin beharreko ekarpen berezia nola egin erabakitzeke geratu zen ostegunean.

Bilkuran izan ziren auzipetuek «pozik» agertu ziren, azaldu zuten, «hilabete askotan gainera izan dugun zamaren zati txiki bat behintzat arindu zaigulako». Beste behin, nekazaritza sindikatuen eta ganaduzaleen babesak eskertu zuten auzipetuek, koronabirusagatik bilkura aretoan egon ez baziren ere, kanpoan zain egon zirelako batzarra amaitu bitartean. Auzipetuek mankomunitateko lehendakariari kirodegia eta musika eskola «beteta» zeuden bitartean, batzar aretoan sektoreko ordezkariak sartzen utzi ez izana aurpegiatu zioten, «are gehiago EH Bilduk parte hartzea beti ahotan darabilenean». Ordu eta erdi iraun zuen batzarra eta eztabaidak iraun bitartean kanpoan izan ziren nekazaritzako sindikatuetako ordezkariak eta baita ganaduzaleak ere.

San Frantzisko 41 eremua hobetzeko lanei ekin zaie

TOLOSA // Eremuko irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak dira. Aurreikuspenen arabera, zazpi aste iraungo dute eta bitarte horretan ez da pasabiderik murriztuko eta bertako komertzioetara sarbidea bermatuko da. Guztira, 115.413 euroko (BEZ gabe) kostua izango dute lanak eta Urbikolan enpresak egingo ditu.

Jabetze eskolako ikastaroak eta izen-ematea bertan behera

TOLOSA // Jabetze Eskolaren barruan iragarritako ikastaro guztiak eta izen-ematea bertan behera geratu dira martxoaren 13tik 29ra. Tolosako Udaleko Berdintasun sailak bertan behera utzitako jardueren gora-behera zehatzen berri emango du las-ter. Oraingoan, telefonoz eta e-mailez jarri ahal izango da harremanetan sailarekin.



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

«Antolatzeko indar handia ematen digu»

Aiztondoko Mugimendu Feministak M8ko balorazioa egin du; kazeroladak egin dira eskualdean, Soraluzeko erailketa salatzen

Erredakzioa Amasa-Villabona

Koronabirusak aktualitate informatibo guztia hartu aurretik Martxoaren 8aren bueltako albisteak ziren nagusi.

Eskualdean mobilizazio jendetsuak egin ziren Martxoaren 8aren bueltako asteburuan, tar-

tean Aiztondo bailaran, eta Aiztondoko Mugimendu feministak balorazio positiboa egin du, bai egunean bertan egindako ekitaldiez eta baita ekitaldiak martxoan zehar egiteko hartutako erabakiaz. Nahiz eta, koronabirusa dela eta, datozen bi asteetako ekitaldiak bertan behera geratu diren.

«Pauso bat harago eman dugula deritzogu zeren lehen genuen gutxieneko kontaktutik gehiagora pasatu gara martxo osorako egitaraua egitera iritsi arte. Hala

ere, esan beharra dago beste hamaika pauso egiteke ditugula eta saretzen jarraitu beharra dagoela».

Martxoaren 7an Anoetan eta Tolosaldeko Asanblada Feministak deituta egin zen festa ere izan dute gogoan: «Aiztondotik harago aurtengoan Tolosaldeko saretzean pauso bat gehiago eman da. Herri desberdinetako mugimendu feministak batu dira eta esaterako, martxak antolatu dituzte, non, harremanak sustatzeko oso baliagarri izan

den. Honek, batu eta antolatzen jarraitzeko indar handia eman digu».

«Emakumeok* bakarrik parte hartzeko Martxoaren 8an egindako giza katea azpimarratu nahiko genuke. Gure helburua Villabona eta Zizurkilgo zubiak elkartzea izan da eta hori lortu dugula esan dezakegu. Bertan, emakumeok* batzea, antolatzea, ahaldundutzea, boteretzea aldarrikatu nahi izan dugu, baita lortu ere», gaineratu du Aiztondoko Mugimendu Feministak.

KAZEROLADAK

Bestalde, atzo iluntzean kazeroladak egin ziren eskualdeko hainbat herritan Soraluzen izandako erailketa salatzen, eta bezperan Soraluzen bertan egindakoari jarraituz.

Izan ere, herenegun emakume bat hilik aurkitu zuten Soraluzeko etxe batean.

Ertzaintzak haren semea atxilotu zuen handik ordu gutxira, ama hil izana leporatuta. Gizonak 33 urte ditu, eta Elorrioko udaltzain bat da.

«Askotan, gure paperada plastikoaren ordezkoko bakarra»

SENEN AMUNARRIZ ARALAR PAPER FABRIKAKO ZUZENDARIA

Papel Aralar Amezketa papergintza konpainiak irabazi du aurten Gipuzkoako Merkataritza Ganberak ematen duen Gipuzkoako Enpresa saria.

Irene Lasa (Berria) Amezketa

Papel Aralarren sortzailearen, hau da, aitonaren izen bera du enpresaren zuzendari nagusiak, Senen Amunarrizek. «Horrela ez dago bisita txartelak aldatu beharrik», egin du txantxa, aitak ere izen bera baitu, eta semeak ere bai. Papel Aralar 1935. urtean sortu zuten, 1936. urtean zabaldu Amezketa lantegia, eta handik bi hilabetera itxi zuen gerrak. Bi urtez egon zen itxirik, atzera jarduera berreskuratu arte. Gaur egun, 200 langile ditu konpainiak, 125 milioi euroko fakturazioa, eta ekoizpenaren hiru laurden esportatzen dituzte.

Saria jaso duzunean, aipatu duzu paperaren sektoreak asko sufritu duela azken urteetan.

Hala da eta. 2004. urtean, 22 papergile ginen; gaur egun, bedertzi gelditzen gara.

Zertan asmatu duzue?

Inbertsioak eginez, berrikuntza landuz eta produktu berriak merkaturatuz iraun dugu bizirik. Erabat berriak ziren produktu gamak ateratzen jakin dugu, eta, 1957. urteaz geroztik, gure fakturazioaren erdia baino gehiago dator esportazioetatik. Gaur egun edonork esportatzen du, baina gu 50eko urteetan hasiak ginen.

Esan duzu plastikoaren ordezkoko zaretela.

Hori da. Gure irudian itzelezko aldaketa da. Nik beti ikusi dut paperak irudi txarra zuela Europa hegoaldean, baina Eskandinaviako herrialdeetara joaten zirenean, Finlandiara eta, han beti hartu dute papergintza bioekonomia gisa; zuhaitzak zituzten, pasta ekoizten zuten... Hemen alderantzizkoa zen: paperak zuhaitzak akabatzen zituela. Orain, hori irauli egin da, eta hainbat eta hainbat produktutan

plastikoaren alternatiba bideragarri bakarra gara. Orain gu ari gara, eta beste batzuk ere bai, muga edo hesi funtzionalak dituzten paperak merkaturatzen; paper iragazgaitzak, oxigenorako porositaterik ez duten paperak, koipearentzako hesia duten paperak... Horien guztien xedea plastikoaren ordezkatzeko da.

Bospasei produktu berri merkaturatzeko asmoa ere baduzue.

Garapen fasean ditugu zenbait produktu, eta horietako batzuk inportanteak, McDonald's bezalako multinazional handiekin batera lantzen ari garenak. Hala, egiteko makina berri bat jarri genuen martxoan 2015. urtean, eta beste makina bat ezarriko dugu. Alegia, hazkunde betean gara. Azken hamar urteetan, 120 milioi euro inbertitu ditugu makinetan.

Araflush egiteko, adibidez.

Produktu hori tutuerietako buxadurak eragozteko garatu dugu. Ehuneko ehun zelulosazkoa den produktu bat da, paper disolbagarria, naturala eta bio-

degradagarria: horrexek ordezkatu du ehuneko ehun plastikoaren produktu bat, paper zapi bustiak. Araflushek merkatu mugatua du orain. Halere, makina berriarekin, lortuko dugu %90 plastikoaren beste produktu bat ordezkatzeko: umeentzako paper zapiak. Merkatu hori zapi bustiena baino dezente handiagoa da, bolumen handikoa.

Beste adibide bat: garagardo botilentzako etiketak.

Hor ere espezializazio handia daukagu, eta negozio bolumen nahiko handia. Gure bezero txinatar batek egunero 65 milioi garagardo botilatxo ekoizten ditu; bai, egunero. Eta, beraz, egunero 65 milioi etiketa eta kontraetiketa jartzen ditu.

Eta paper horiek Amezketa egin dira?

Guzti-guztiak ez, baina zati handi bat bai. Garagardo etiketatara papera mundu osoan saltzen dugu guk: Brasil, AEBak, Kolonbia... Paper oso berezia da. Kontua ez da soilik inprimagarria izatea, botilara ongi itsatea eta

tolesturarik ez sortzea; sosaren kontrako erresistentzia izan behar du, botila garbitzen denerako. Baina etiketa kendu behar denerako ere propietate jakin batzuk behar ditu. Produktu nahiko berezia da. Hiru fabrikatzaile daude munduan, eta gu gara horietako bat.

Familia enpresa zarete; hiru garren belaunaldia eta laugarrena zaudete fabrikari. Zer abantaila eta desabantaila ditu horrek?

Gauzak ondo doazenean, ez dago problemarik, eta beti joan gara ondo. Ondo moldatzen gara.

Badago kezka bat: kanpotik handiak etortzea Gipuzkoako punta-puntako familia enpresak jatera. Izan duzue halako saiorik?

Enpresa lehiakideak eta inbertsio funtsak etengabe ari dira aukerak begiratzen. Baina guk nahiago dugu txikienetan buru izan, handienetan azkenputz baino. Oraingoz ez dute lortu gutentzatzerik, pasioz egiten baitugu egiten duguna.



ATARIA

Tatami gaineko mugimendu zehatzak

Europako Txapelketara joateko asmoz gogor ari ziren entrenatzen Unai Saralegi eta Unai Regillaga judokak. Borroka baino ezagunagoa den kata modalitatean lehiatzen dira bikote moduan.

Imanol Garcia Landa

Beste kirolari guztiei moduan, koronabirusaren inguruan hartu diren neurriek hankaz gora jarri diete Unai Saralegi (Tolosa, 1992) eta Unai Regillaga (Amezketza, 2002) judokei denboraldia. Bikote moduan parte hartzen dute kata txapelketetan. Aurtengo denboraldian Europako Txapelketara sailkatzea da helburua, baina orain dena airean dago.

Hain justu, asteburu honetan, martxoaren 21ean, zuten Espainiako Txapelketa. «Orain ez asko Italiara joatekoak ginen, Europako Kopako proba batera, gero Europako Txapelketarako puntu gehiago lortzeko. Koronabirusarengatik bertan behera geratu zenean, disgustua hartu genuen», esan du Saralegik. «Orain kirol ekitaldiak hemen ere bertan behera geratu dira, eta egoera horrela onartu beharra dago. Aurten gogo handiz ginen guztia emateko, eta hiru astetan hiru txapelketa genituen. Halere, orain gutxienekoa da kirol lehiaketek gaia, gauza garrantzitsuek gaia daude».

Gaur egun ez dakite Espainiako Txapelketarik egingo den. Europako Txapelketa ekaina hasieran egitekoa da, baina, beste behin, lehiaketa horrekin zer gertatuko den ere ez dago argi. «Behin normaltasuna iristerakoa, ikusi egin beharko da zein txapelketa dauden hortik aurrera egutegian, eta egin ez direnak tartekatu daitezkeen ala ez», esan du Saralegik. Aurten Espainiako Kopako bi probetan parte



Unai Regillaga eta Unai Saralegi judokak, entrenamendu batean, Tolosako Usabal kiroldegian. I.G.L.

hartu dute. Madrilen egin zutenarekin gustura geratu ziren, baina puntuazioa jasotzerakoan bosgarren geratu ginen. «Nahiko haserre itzuli ginen handik». Gero Asturiasen bigarren geratu ziren. «Hor gustura geratu ginen. Kata modalitatea puntuazio bidez funtzionatzen du, eta batzuetan epaileek emandakoarekin gustura geratzen zara eta besteetan ez».

Denboraldian zehar Espainiako Kopako probak, Espainiako Txapelketak eta Europako Kopako probak kontuan hartzen dira sailkapena egiteko, eta hortik aukeratzen dira Europako Txapelketara eta Munduko Txapelketara joaten diren bikoteak. Koronabirusaren aurkako neurriek eragindako denboraldi berezi honetan sailkapena nola osatuiko den ikusteko dago ere.

Binaka lehiatzen dira judoaren modalitate honetan, mugimendu jakin batzuk eginez, baina, noski, egun ezin dute batera entrenatu. «Bakoitza bere kontura ari gara alderdi fisikoa lantzen. Berak zortea du anaiak ere judoa egiten duelako eta bien artean zerbait egin dezakete», esan du Saralegik. «Mugimenduak egiteko zortzi-hamar metro behar izaten ditugu, eta etxean konplikatu da, baina zer edo zer egitea badago».

NAGENO KATA

Aurreko denboraldian hasi ziren lehiatzen bikote moduan Saralegi eta Regillaga. Espainiako Kopako probetan «denetariko emaitzak» lortu zituzten. «Portugalgo txapelketa batean lehenengo postua lortu genuen. Lehenengo aldia zen Espainiatik

kanpora ateratzen ginela, eta lehenengo postua lortzea bultzada handia izan zen gure lanarekin jarraitzeko», esan du Saralegik. «Espainiako Txapelketan ez genuen gure egunik onena izan, eta laugarren postua lortu genuen, eta bi punturengatik Europako Txapelketatik kanpo geratu ginen».

Saralegi aritu zen aurretik lehiaketetan parte hartzen. 2012. urtean hasi zen, Aitor Alberdi bikote zuela. «Hiru urte oso onak izan genituen, eta gero belauneko lesio bat izan nuen eta geldialdi luze bat egin behar izan genuen, eta ez genuen jarraitu», esan du Saralegik. «Lau edo bost urte txapelketetatik kanpo egon naiz, eta aurreko denboraldian Unairekin hasi naiz lanean, eta momentuz gauzak ondo doaz». Alberdirekin batera lehiatu ze-

nean, besteak beste, bi urtez jarraian parte hartu zuten Europako Txapelketan, bederatzigarren eta seigarren sailkatuz.

Judoko kata lehiaketan bost modalitate daude, eta Saralegik eta Regillagak Nage No Kata izenekoa egiten dute, borroka lehiaketekin antza gehien duena. Saralegik 3. Dan mailako gerriko beltza du, eta Regillagak 1. Dan mailakoa. Bi judoken artean egiten dira mugimendu jakin batzuk, zehatz-mehatz egin beharrekoak, eta epaileek puntuak ematen dituzte. «Judoan katak baino gehiago ezagutzen da borroka lehiaketa, besteak beste, Olinpiar Jokoetan hori baita sartzen dena», esan du Saralegik. Borrokako lehiaketan ere parte hartu izan zuen, gazteagoa zenean, eta Espainiako Txapelketaren batean parte hartu zuen, eta Euskadiko Txapelketan podiumak lortu zituen. «Ez naiz iritsi, katetan bezala, Europako Txapelketaren batean parte hartze- ra. Belauneko lesioa izan nuenetik dezente gutxitu ditut nire parte hartzeak borroka txapelketetan», zehaztu du Saralegik.

Sei urte zituela hasi zen judoa praktikatzeko, beraz, 21 urte darmatza tatamietan giltzak egiten eta lurrera erortzen. «Judoa txikitik barneratu dudana zerbait da», azaldu du Saralegik. «Pertsonalki, judoaren eta orokorrean arte martzialen filosofiarekin eroso sentitzen naiz. Horrez gain, ihesbide bat da niretzako, lehen ikasketetatik eta egun lanetik. Adrenalina puntu hori du eta niri asko laguntzen dit».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan

16:00ak arte hartzen ditugu



Jose Ramon Insausti Urbizu

(Ines Laskurainen alarguna)

Atzo hil zen 94 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Gure Kabiko erreferente
umila ta zentzuduna
Adarra joaz umoretsua
langile eta laguna

Bizitzan zer den
garrantzitsua
erakutsi diguzuna
Izar bat gehio izango zara
Gure "abuelito" kuttuna.

Seme-alabak: Patxi eta Agus Zinkunegi, Jose Ramon eta M^a Asun Zeberio; bilobak: Izaro, Jon, Mikel, Aritz; anaia-arrebak, ezkon anaia-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

ARAMA - ORDIZIA, 2020ko martxoaren 18an

Helbidea: Gure Kabi etxea

Oharra: Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu eta gaur egungo osasun egoera ikusita, agurra senitartean egingo da. Egoerak ahalbidetzen duenean, hileta meza egingo da



ASTEAZKENA, 2020KO MARTXOAK 18
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118, ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Ahoz-Aho Ahozkotasunaren jaialdiko antolatzaileek 'Ipuinak ez dira geldituko' ekimena jarri dute abian, bizi dugun egoeran gaztetxoek euren etxeetan ipuinak jaso ditzaten.

Ipuinek ez dute etenik

Erredakzioa

Aurtengo Ahoz-Aho Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdiari dagozkion ekitaldiak bertan behera geratu dira koronabirusagatik. Intujai Teatrok antolatutako ekimenak 20 ikuskizun baino gehiago zituen aurreikusita aurtengorako, eta kalean egin ezin go badute ere, era batera edo bestera ekimena mantentzea pentsatu dute.

May Gorostiaga antolaketa taldeko kideak adierazi duenez, «garrantzitsua» iruditu zaie gauden egoeran zerbaite egitea: «Gaztetxoek ezin dutela etxetik aterara kontuan hartuta, ipuinak etxera eramateko ideian pentsatu dugu». Helburu horrekin jarri dute martxan *Ahoz-Aho, Ipuinak ez dira geldituko!* kanpaina. «Gure ideia da datozen bi asteetan ipuinekin gozatzen jarraitzea, eta hori plataforma desberdinen bitartez egin nahi dugu». Sare sozialetan zabalduko dituzte, eta horrekin batera, komunikabideetan ere ikusi eta entzun ahaliko dira. **TOLOSALDEKO ATARIA**-n, esaterako, *ataria.eus* webgunean bideo bat zintzilikatuko da egunero, 09:00etan, eta **ATARIA IRRATIA**n lau aldiz izango dira en-



Amaia Pagolaren 'Argia' izeneko ipuina izango da 'Ataria'-n ikusiko den lehena.

tzungai ipuinak egunean, 10:00etan, 12:00etan, 18:00etan eta 20:00etan.

Oraingo jaialdian parte hartu behar zuten ipuin kontalariak egin dituzten bideoak ipuinak kontatuz, baina, deialdia herriar orori zabaldu diote antolatzaileek. «Ekimenean parte hartu nahi duten guztiek ateak zabalik dituzte, eta horretarako bideotxoak ipuina kontatuz grabatu eta Intujai Teatroren facebookarekin etiketatzea nahikoa da», azaldu du Gorostiagak. Halaber, 678 99 01 62 zenbakira whatsapppe bidaltzeko aukera ere jarri dute eskura.

EUSKARAZKO IPUINAK

Argia. Amaia Pagola.
Lizardiren olerkiak partekatzen. Imanol Artola Felix.
Gora maitasun platanikoa. Bego Alabazan.
Munduko etxerik handiena, gure etxetik mundura. Ana Apika.
Piztien gerra. Joxe Mari Carrere.
Urteak betetzen dira, ametsak ere bai. Ane Gebara.
Itzaletik argi izugarria. Amane eta Lizar.
Intralurtarrak. Aitor Vinagret.
Pertsianak ireki. Itziar Rekalde.
Afrikara! Gora Baobab bihotzak! Maider Alzelay.

ASTEAZKENA 18

EGURALDIA



Gaur. Giro eguzkitsua eta epela. Hego-haizeak tenperaturen gorakada handi xamarra ekarriko du. Maximoak 18-20 graduan errendituko dira. Zeruan urdina nagusi izango da, nahiz eta, arratsaldean bero-hodeiren bat garatuko den. Hala ere, bero-hodei hauek ez dute ondorioz ekarriko.



Bihar. Udaberri giroa. Hego-haizeak jotzen jarraituko duenez termometroak are gehiago igoko dira, maximoak 19-21 gradu bitartean geratuz. Zeruan goizean apenas ikusiko dugun hodeirik.

Arratsaldean bero-hodeiak garatuko dira eta azken orduetan ez da baztertzen zaparradaren bat izatea.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6 behe. 1. 943 67 51 18.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Hemen
eta online

iragarki
laburrak
.eus



ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·